

IPUINEN TAILERRA: Nola dastatu ilargia?



“Nola dastatu ilargia?” ipuina izan ezean erraz kontatu ahal den ipuina da, eta umeei modu dibertigarrian kontatzeko istorio paregabea da. Gainera, umeen parte hartze aktiboa ahalbidetu ahalko dugu, hala nola, ipuinaren kontaketa edo itzalen kutxaren eta istorioaren pertsonaien prestaketan ere.

Ipuina kontatu aurretik gurasoek istorioaren kontakizuna barneratzeko ipuina ikusiko dute, aurrerago umeei kontatu ahal izateko. Hurrengo web helbideetan ipuina aurkitu ahal izango duzue:

- Euskaraz: <https://www.youtube.com/watch?v=Ms3EFDa6tC4>
- Erdaraz: https://www.youtube.com/watch?v=rDb_dPtZumE

Jarraian, itzalen antzektokia prestatuko dugu:



Materialak: kartoizko kaxa handi bat, paper begetala (labeko papera da), guraizeak, kuter bat, erregela, itsaskina (hau izan ezean zeurea sortu ahal duzu: <https://www.pequeocio.com/manualidades-ninos-hacer-cola-casera/>), broxeta makilak edo beste edozein euskarri (arkatzak, lastotxoak..), kartoi mehea (cartulina) beltza eta errotulagailu beltza.

Jarraitu beharreko pausuak:

1-Kaxaren tapa hartu eta marko bat marraztuko dugu. Markoa zuen kaxaren tamainaren arabera izanen da. Markoa moztu eta margo beltzarekin margotu.

2- Paper begetala moztu (kaxaren taparen neurrira moztu) eta papera kaxaren barrutik itsatsi.



3- Pertsonaiak prestatu: Kartoi mehean pertsonaien irudiak marraztu, moztu eta makiletan itsatsi.

4. Kaxaren atzealdean argi foku arrunta jarri.

Ipuinaren kontaketa dagokionez antzektokiaren alboetan pertsonaiak prest izan eta ipuina kontatu. Adibidez ipuina kontatzeko lehen leloa erabili: “Dilin dalan!! dilin dalan!! ipuinaren tarte da!! Ipurdia itsatsita!!, begiak irekita!!, belarriak erne eta tente!!” eta ahoa kremailearekin itxita!! “Bazen behin ...” Eta ipuina amaitzeko leloa: “eta hala bazan kalabazan atera dadila Atarrabiako plazan!!”



Bukatzeko, ipuina kontatzeko beste aukera bat dago: hiru kartoi mehe batu, bata bestearen gainean ipiniz eta horman itsatsi. Horma irudia prestatu: ilargia aluminio paperarekin eta kartoi mehearekin sortu, pertsonaiak inprimatu edo pertsonaiak kartoi mehean marraztu, apaindu eta moztu.

Pertsonaien atzealdean itsaskin (celo) pixka bat ipini eta modu honetan, ipuina kontatzen joaten garen heinean pertsonaiak horma irudian itsasten goaz.

“Eta hala bazan kalabazan atera dadila Atarrabiako plazan!!”